

8

EKONOMIA

ECONOMÍA

Mikel Zurbano Irizar (*)

(*) **Ekonomia Aplikatua Saileko Irakaslea. Ekonomia- eta Enpresa- Zientzien Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Profesor del Departamento de Economía Aplicada. Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales. Universidad del País Vasco.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. LA EVOLUCIÓN RECIENTE DE LAS PRINCIPALES MACROMAGNITUDES
3. LOS FACTORES DINAMIZADORES DE DEMANDA
4. LAS RELACIONES ECONÓMICAS EXTERNAS DE LA C.A. DE EUSKADI
 - 4.1. El comercio exterior
 - 4.2. La inversión extranjera directa
5. LA DINÁMICA PRODUCTIVA
 - 5.1. Las relaciones sectoriales y el cambio estructural
 - 5.2. Dimensión y dinámica empresarial
6. CONCLUSIONES
7. BIBLIOGRAFÍA

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. MAKROMAGNITUDE NAGUSIEN HURBILEKO BILAKAERA
3. ESKARIAREN FAKTORE DINAMIZATZAILEAK
4. EUSKAL AEREN KANPO-HARREMAN EKONOMIKOAK
 - 4.1. Kanpoko merkataritza
 - 4.2. Atzerriko zuzeneko inbertsioa
5. PRODUKZIO DINAMIKA
 - 5.1. Sektoreen arteko harremanak eta egiturazko aldaketa
 - 5.2. Enpresa tamaina eta dinamika
6. ONDORIOAK
7. BIBLIOGRAFIA

1. INTRODUCCIÓN

La limitación del espacio junto con la naturaleza coyuntural del análisis obligan a una acotación temporal que en este caso abarcará el periodo 1995-2004. Es preciso llamar la atención de los problemas de incompatibilidad de datos, aunque son progresivamente menores debido al esfuerzo de adaptación que realiza tanto Eustat como otros institutos de estadística europeos a los principios y criterios europeos. Para ilustrar este esfuerzo de homogeneización podemos citar el Sistema Europeo de Cuentas 1995 (SEC-95), que constituye un marco contable comparable a escala de la Unión Europea y cuyo fin es realizar una descripción sistemática y detallada de una economía en su conjunto, de sus componentes y de sus relaciones con otras economías. Además, esta versión SEC es totalmente coherente, a su vez, con la versión actualizada del Sistema de Cuentas Nacionales (SCN-1993) que marca las directrices mundiales sobre contabilidad nacional.

La economía mundial ha conocido durante el periodo 1995-2004 un crecimiento moderado y de carácter desigual según los años. Tras la recesión de la primera mitad de los noventa, los ritmos de crecimiento del producto mundial evolucionaron positivamente durante la segunda mitad de los noventa, con la salvedad de 1998, año en el que las turbulencias financieras del sudeste asiático y Rusia –a las que se añadieron más tarde las del cono sur americano– convulsionaron el devenir de la economía del planeta y provocaron que las tasas de crecimiento del comercio exterior en 1998 y 1999 fueran las más bajas de la década¹.

Con posterioridad el ritmo de crecimiento económico mundial durante los primeros años de la nueva década del 2000 se vió constreñido. En el contexto de liberalización y apertura de mercados, la competencia global ha puesto de manifiesto la existencia de una sobrecapacidad de producción que ni siquiera el tradicional mecanismo keynesiano del gasto militar ha sido capaz de absorber plenamente. La fuerte caída en las tasas de crecimiento del comercio mundial y de los flujos de inversión extranjera directa de los primeros años de la actual década son fiel reflejo de esta realidad.

En la Unión Europea, 1995 supuso el comienzo de una nueva fase de crecimiento contenido que en los primeros años del nuevo milenio se retrajo hasta tasas cercanas al 1% anual, insuficientes para la creación neta de empleo. Esta situación contrasta con el mayor crecimiento, nivel de generación de empleo e incremento de la productividad en los Estados Unidos durante estos años, con la salvedad del año

¹ La información sobre los indicadores mundiales y europeos de este apartado se han extraído de los informes del Banco Mundial, Fondo Monetario Internacional, OCDE y Organización Mundial del Comercio que aparecen citados en la sección bibliográfica.

1. SARRERA

Lekuaren muga eta analisiaren izaera tarteko, beharrezkoa da denborazko akotazioa egitea, eta hori 1995-2004 urteen artekoa izango da. Datuen bateraezintasunaz ohartarazi beharra dago, nahiz eta gero eta txikiagoak izan, Europako lehentasunak eta irizpideak betetzeko Eustatek eta Europako beste estatistika institutu batzuek egiten duten ahaleginari esker. Homogeneizatzeko ahalegin hori islatzeko, 1995.eko Europako Kontu Sistema 1995 (EKS-1995) aipa dezakegu. Europar Batasuneko eskalan aldera daitekeen kontabilitate-esparrua da, eta bere helburua da ekonomia baten deskribapen sistematikoa eta zehatza egitea; ekonomia bat bere osotasunean deskribatzen du, bere osagaien deskribapena egiten du eta beste ekonomia batzuekin dituen harremanak deskribatzen ditu. Era berean, EKS bertsio hori erabat koherentea da mundu mailako irizpide nagusiak herri arteko mailan zehazten dituen 1993.ko Nazioetako Kontu Sistemaren (NKS-1993) bertsio eguneratuarekin.

1995-2004 urteen artean, mundu-ekonomiak hazkunde ertaina izan du, baina ez da beti berdina izan tarte horretako urte guztietan. 90eko hamarkadako lehen erdiko atzeraldian ondoren, mundu-produktuaren hazkunde erritmoek ondo eboluzionatu zuten 90eko hamarkadako bigarren erdian, 1998. urtean izan ezik; urte horretan Asiako hego-ekialdeko eta Errusiako finantza-zurrunbiloek –geroago, horiekin bat egin zuten Amerikako hegoaldekoek– mundu-ekonomiaren etorkizuna aztoratu zuten, eta 1998. eta 1999. urteetan nazioarteko merkataritzako hazkunde-tasak hamarkadako txikiak izatea eragin zuten¹.

Horren ostean, mundu-ekonomiaren hazkunde erritmoa mugatua geratu zen 2000ko hamarkadako lehen urteetan. Merkaturaren liberalizazio eta irekitze testuinguruan, lehiakortasun globalak agerian utzi du produkzio gaitasun handiegia dagoela, eta gastu-militarraren mekanismo keynesiar tradizionalak ere ezin izan du erabat xurgatu. Hamarkadako lehen urteetako nazioarteko merkataritzaren hazkunde-tasaren eta atzerriko inbertsio-fluxuen jaitsiera handiek agerian uzten dute egoera hori.

Europar Batasunean 1995. urtean eutsitako hazkunde aro berri baten irekiera gertatu zen; milurteko berriaren lehen urteetan, urteko %1ekoa izan arteko atzeraldia izan zuen, eta hori ez da nahikoa erabateko enplegua sortzeko. Barne-portaera oso ezberdina izan arren –Espainiako estatuan tasak batez bestekotik gora daude, barruko eskariaren indarrarengatik– eta egiturazko arazoak kontuan izan gabe, barruko

¹ Atal honetako munduko eta Europako adierazleei buruzko informazioa bibliografia atalean agertzen diren Munduko Bankutik, Nazioarteko Moneta Funtsetik, ELGAtik eta Munduko Merkataritza Erakundetik lortu dira.

2001. Aunque con comportamientos internos muy distintos –en el Estado español las tasas están por encima de la media en virtud de la fortaleza de la demanda interna– y más allá de las razones estructurales, la debilidad de la demanda interna, sobre todo en Alemania que representa la cuarta parte del producto de la UE, y la fragilidad de la externa con un euro al alza durante los últimos años, apuntan como los factores diferenciales decisivos de esta mediocre coyuntura económica reciente en Europa.

Es precisamente este marco europeo el referente económico e institucional en el que se integra la economía vasca durante su trayectoria contemporánea. La creación del mercado único europeo en 1992 y la posterior entrada en vigor de la moneda única constituyen dos hitos fundamentales para la comprensión de la evolución reciente y las coordenadas básicas de la actual situación de la economía de la C.A. de Euskadi. Sin embargo, la integración en un proceso de unión monetaria y económica de las características de la Unión Europea no prejuzga la situación de integración real y convergencia con los parámetros e indicadores europeos. En efecto, éste constituye uno de los aspectos centrales del análisis que se realiza en este capítulo. Es decir, en la medida de lo posible se observan indicadores comparados para la economía vasca y la de la Unión Europea con el fin de llegar a una conclusión firme en lo que respecta a la convergencia real de la economía vasca en el ámbito europeo.

Es preciso tener en cuenta que la presencia en este informe de capítulos de gran proximidad en contenido obliga a realizar un esfuerzo añadido para impedir el solapamiento en el tratamiento de determinados indicadores. Es así que en este capítulo hemos soslayado, en la medida de lo posible, el análisis del empleo o la población, ya que los capítulos relativos al mercado de trabajo y la demografía los contemplan en su integridad. En cualquier caso, el índice desarrollado aquí, si bien no lo agota, sí alcanza el contenido nuclear de la trayectoria global de la economía vasca contemporánea.

eskariaren ahultasuna –batez ere Alemanian, eta hori da EB-koaren laurden bat– eta azken urteetan goraka ari zen euroarekin bat egin zuen kanpoko eskariaren hauskortasuna dira azken urteotako Europako ekonomia-koiuntura eskasaren arrazoi bereizle nagusiak.

Hain zuzen, Europako esparru hori da ibilbide garaikidean Euskadiko ekonomia dagoen ekonomia- eta erakunde-erreferentzia. 1992. urtean Europako merkatu bakarra sortzea eta gerora moneta bakarra zirkulazioan jartzea funtsezkoak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren azken urteotako bilakaera eta gaur egungo egoeraren oinarritzko koordinadak ulertzeko. Hala ere, Europar Batasuna bezalako moneta- eta ekonomia-batasun prozesu batean sartzeak ez du aurretik epaitzen daukan benetako integrazio-maila eta Europako parametroekin eta adierazleekin daukan elkarganatzea. Izan ere, horixe da kapitulu honetan egiten den analisiaren arlo nagusietako bat. Hau da, Euskadiko ekonomiarekin eta Europar Batasunekoarekin alderatzen diren aldagaiak ahalik eta ondoen agertzen dira, Euskadiko ekonomiak Europako esparruan daukan benetako elkarganatzea zein den erakusteko asmoarekin.

Esan beharra dago edukien antzekotasun handia duten kapituluak daudela txosten honetan, eta horrek ahalegin handiagoa eskatzen du, aldagai jakin batzuen tratamenduen gainjarpena ez gertatzeko. Hori dela eta, ahal izan den neurrian enpleguaren eta biztanleriaren analisia saihestu ditugu kapitulu honetan, lan-merkatuari eta demografiari buruzko kapituluek osotasunean aztertzen dituztelako. Dena dela, hemen garatutako aurkibidea Euskadiko ekonomia garaikidearen ibilbide globalaren eduki nagusira heltzen da, erabat agortzen ez badu ere.

2. LA EVOLUCIÓN RECIENTE DE LAS PRINCIPALES MACROMAGNITUDES

Tal y como se avanza en la introducción, en este apartado dejamos al margen del análisis los indicadores demográficos y del mercado de trabajo. Éstos son objeto de estudio específico en otros capítulos de este informe y han de ser contemplados desde su complementariedad con éste. Es por esto que en el estudio de las macromagnitudes el indicador del producto es el eje central de desarrollo, aunque resulta inevitable incorporar directa o indirectamente variables demográficas o de empleo en aspectos puntuales del mismo.

Acudiendo a la realidad del producto generado por la C.A. de Euskadi es importante comenzar por señalar un aspecto que no se contempla habitualmente en los análisis de coyuntura al uso. Nos referimos a la incorporación del trabajo doméstico en el cómputo del producto generado por las economías. Es sabido que la contabilidad nacional obliga a que cualquier actividad económica pase por el filtro del mercado para que sea incorporada en el producto interior. Pero, las aportaciones críticas que desde el plano teórico se realizan a la construcción del producto interior cuestionan cada vez más el PIB de un país, tal y como se contabiliza oficialmente, como índice más fiel de la realidad económica del mismo². Desde la perspectiva de género la necesidad de contemplar también el trabajo doméstico en sus distintas vertientes como parte del producto generado por la sociedad ha acarreado como novedad la valoración del mismo por parte de algunas fuentes estadísticas. En lo que respecta a la C.A. de Euskadi, Eustat realiza una valoración del trabajo doméstico en la «Cuenta satélite de la producción doméstica». En virtud de la misma sabemos que el trabajo vinculado a las tareas del hogar proporciona un valor monetario estimado para el año 2003 de en torno a la tercera parte del total del PIB oficial de la C.A. de Euskadi. Sabemos también que el grueso de ese trabajo es realizado todavía hoy en día por mujeres, de manera que las cifras oficiales del PIB subestiman en una elevada proporción la totalidad de la actividad económica realizada en esta comunidad autónoma. Aquí nos limitamos a destacar este hecho y valorar positivamente el esfuerzo de generación de datos en relación a esta realidad hasta ahora oculta a la espera de que su elaboración por otros organismos estadísticos permita ofrecer una fotografía más ajustada de la realidad productiva global.

Para entender el contexto de la evolución reciente de la economía vasca hay que insistir en que la misma se inscribe en la coyuntura mundial y europea que hemos avanzado aunque con un perfil propio. Durante el periodo comprendido entre 1995 y 2004 la C.A. de Euskadi ha incrementado el producto interior bruto en un 85%, si nos atenemos al crecimiento en valores monetarios corrientes, ya que la cuantía del mismo se elevó de 28.855 millones a 53.336 millones de euros en dicho periodo (cuadro 1). Ahora bien, como es bien conocido la evolución del PIB en términos corrientes o nominales se realiza a precios de mercado por lo que la valoración monetaria incorpora el sesgo del incremento de precios de los bienes y servicios que se contabilizan. Para evitar este

² Es el caso de los indicadores sintéticos que están integrando distintos organismos internacionales en sus estudios e informes anuales para subsanar las limitaciones metodológicas del tradicional índice del producto, cuyo ejemplo más conocido y asimilado en los análisis económicos es el índice de Desarrollo Humano del PNUD y Banco Mundial.

2. MAKROMAGNITUDE NAGUSIEN HURBILEKO BILAKAERA

Sarreran aurreratzen den bezala, atal honetan analitiki kanpo uzten ditugu demografia eta lan-merkatu adierazleak. Horiek sakon aztertzeke kapituluak badaude txosten honetan, eta kapitulu honekin daukaten osagarritasunarekin begiratu behar dira. Hori dela eta, makromagnitudeen azterketan produktuaren adierazlea garapenaren ardatz nagusia da, nahiz eta atal jakin batzuetan demografia- edo enplegu-aldagaiak modu zuzenean edo zeharka erabiltzea ezinbestekoa izan.

Euskal Autonomia Erkidegoak sortzen duen produktuaren errealitateari helduta, ohiko koiuntura-analisietan aipatzen ez den gai bat jasotzetik abiatzea garrantzitsua da. Etxeko lana ekonomiek sortutako produktuen artean sartzeaz ari gara. Jakina denez, herrialde baten kontabilitateak eskatzen du edozein ekonomia-jarduera merkatutako iragazkitik igarotzea, barne-produktuen artean sartu ahal izateko. Baina teoriatik barne-produktuaren eraikuntzari egiten zaizkion kritika ekarpenek gero eta gehiago jartzen dute zalantzan herrialde baten BPG, era ofizialean zenbatzen den bezala, eta BPG hori herrialde bateko ekonomia baten errealitatearen aldagai adierazgarriena izatea². Genero ikuspegitik, etxeko lana bere alde guztietan gizarteak sortutako produktuen artean sartu beharrak eragin du estatistika-iturri batzuk ere beste horrenbeste egitea. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, «Etxeko produkzioaren kontu satelitea» atalean egiten du balorazio hori Eustatek. Horren arabera, etxeko egitekoen lotutako lanen diru-balioa 2003. urteko Euskal Autonomia Erkidegoaren BPGren herena dela badakigu. Era berean, lan horren zati handiena oraindik ere emakumeek egiten dutela dakigu, eta horrenbestez, BPGren zenbaki ofizialek erkidego autonomo honetan egiten den produkzioaren zati handi bat ez du kontuan hartzen. Hemen gai hori aipatzera mugatzen gara, eta orain arte ezkutuan egon den errealitate horretako datuak sortzeko egiten ari diren ahalegina txalotzen dugu; beste estatistika erakunde batzuk horiek ere landuko dituztenaren zain geratzen gara, produkzioaren errealitate globalaren argazki zehatzagoa lortzeko asmoarekin.

Euskadiko ekonomiaren hurbileko bilakaeraren testuingurua ulertzeko, azpimarratu behar da aurreratu dugun Munduko eta Europako koiunturan kokatu behar dela, nahiz eta bere soslaia izan. 1995. eta 2004. urteen arteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoak %85 hazi du bere barne produktu gordina; balio monetario arruntaren hazkundera mugatzen bagara, horren kopurua 28.855 milioitik 53.336 milioira igaro zelako epe horretan (1. go taula). Jakina denez BPGren hazkundera termino arrunt edo nominaletan merkatu-prezioen arabera egiten da, eta horrenbestez, balio monetarioaren balorazioak ondasunen eta zenbatzen diren zerbiztuen prezioen hazkunderaren alborapena jasotzen du. Alborapen hori saihesteko, BPGren kateatutako bolumen indizea jasotzen

² Nazioarteko erakundeek beren urteko azterketak eta txostenak egiteko sartzen ari diren adierazle sintetikoek kasua da; produktuaren adierazle tradizionalaren muga metodologikoak konpontzeko erabiltzen dituzte. Ekonomia-analisietan adibide ezagunena eta asimilatua PNUDen Giza Garapenaren eta Munduko Bankua indizea da.

sesgo se incorpora el índice de volumen encadenado del PIB desde una perspectiva dinámica. Según este indicador de volumen el crecimiento acumulado real del PIB de la C.A. de Euskadi, durante este periodo, se reduce al 42%, es decir, a la mitad del correspondiente al crecimiento valorado en precios corrientes (cuadro 1). Esta distancia entre los resultados de ambas mediciones nos informa, a su vez, del importante aumento de los precios implícitos en el PIB nominal, del que suele extraerse el indicador de precios conocido como deflactor del PIB.

da ikuspegi dinamiko batetik. Bolumen indize horren arabera, epe horretako Euskal Autonomia Erkidegoko BPGren benetak hazkunde metatua %42koa baino ez da; hau da, prezio arruntetan baloratutako hazkundearen erdia (1.go taula). Bi neurketa horien emaitzen arteko aldeak erakusten digu BPG nominalean izandako prezio hazkunde inplizitua handia izan dela, zeinetatik BPGren deflektatzailea izeneko indizea ateratzen den.

Evolución del PIB de la C.A. de Euskadi a precios de mercado

1

Euskal AEko BPGren bilakaera merkatu-preziotan

	Prezio arruntak Precios corrientes		Bolumen indizea Índice volumen
	Euroak, milakotan Miles de euros	1995 = 100	1995 = 100
1995	28.855.320	100,00	100,00
1996	30.779.066	106,67	103,10
1997	32.978.017	114,29	108,04
1998	35.967.928	124,65	114,53
1999	38.859.306	134,67	120,14
2000	41.957.873	145,41	126,39
2001	44.249.145	153,35	130,43
2002	46.559.413	161,35	133,43
2003	49.572.859	171,80	137,57
2004	53.336.123	184,84	142,11

Iturria: Eustat, Ekonomia-Kontuak.
Fuente: Eustat, Cuentas Económicas.

El otro indicador de la evolución de los precios más conocido es el Índice de Precios al Consumo que corrobora de manera más explícita la existencia de un significativo aumento en el nivel de precios de la C.A. de Euskadi durante la última década. En efecto, con la excepción del 2003 y de los dos años previos a la entrada en vigor de la unión monetaria, para la que se exigía como condición el control riguroso en las tasas de inflación, el crecimiento del IPC se sitúa por encima del tres por ciento con una clara tendencia a repuntar. Es evidente la presión alcista directa que el incremento de los precios de las materias primas, en general, y del petróleo, en particular, ejerce sobre el nivel general de precios durante estos últimos años. Pero esa misma presión es ejercida en otros países de la zona euro y el resultado en términos de incremento general de precios es menos elevado. Por eso hay que orientar el análisis hacia otros aspectos estructurales que en el caso de la evolución de los precios en la economía vasca resultan ser parecidos a los de la economía estatal. Brevemente, sin pretender agotar las razones explicativas, destacan la estructura de distribución en los mercados de bienes, el peso de los servicios de baja calidad, la fuerte presión especulativa en el mercado inmobiliario, la baja productividad en relación a los países del entorno y la fuerte propensión al consumo, entre otros factores (Espínola, 2006).

Esta evolución alcista de los precios por encima de los de la eurozona no ha impedido que el importante crecimiento real de la economía tenga una traslación en la creación de em-

Prezioen bilakaera ezagutzeko beste adierazle ezagun bat Kontsumo-Prezioen Indizea da; Euskal Autonomia Erkidegoan azken hamarkadan prezio-mailaren hazkunde handia izan dela erakusten du modu esplizituagoan. 2003. urtea eta moneta batasuna indarrean jarri aurreko bi urteak izan ezik –inflazio-tasak zorrotz betetzea bertan sartzeko baldintza zen–, KPIren hazkunde ehuneko hirua baino handiagoa da, eta joera gorakoa izan da beti. Nabaria da lehengaien prezioen hazkundeak, oro har, eta bereziki petrolioaren prezioaren hazkundeak azken urteotan prezioen maila orokorrean egiten duen goranzko presioa. Baina presio bera gertatzen da euro-guneko beste herrialde batzuetan, eta prezioen maila orokorrean gertatzen den hazkunde ez da hain handia. Hori dela eta, analisia beste egiturazko alde batzuetara bideratu behar da. Euskal ekonomiako prezioen bilakaeraren kasuan, Estatuan gertatutakoaren parekoa da. Labur esanda, eta arrazoi esplikatzaileak agortu nahi barik, merkatuko ondasunen banaketa egitura, kalitate txikiko zerbitzuen pisua, higiezin merkatuan dagoen espekulazio presio handia, inguruko herrialdeekin alderatuta dagoen produktibitate txikia eta kontsumoaren propentsioa azpimarratu behar dira, beste aldagai batzuen artean (Espínola, 2006).

Prezioen goranzko bilakaera horrek –euro-gunean izandakoa baino handiagoa– ez du saihestu ekonomiaren benetako hazkundeak enpleguen sorreran eragina izatea, nahiz eta

pleo, aunque es evidente que hipoteca la capacidad competitiva de la economía vasca a medio y largo plazo. Así, durante este periodo las tasas de generación de empleo en la C.A. de Euskadi se han situado por encima del 2,5% por término medio, siendo los años centrales del periodo los que destacan en esta aportación. Como consecuencia de esta dinámica, y a pesar del aumento de la población activa producida por la creciente incorporación de las mujeres al mercado oficial de trabajo, la tasa de paro en la C.A. de Euskadi ha disminuido de manera considerable durante la última década.

begi-bistakoa izan epe ertainean eta luzean Euskadiko ekonomiaren lehiakortasun gaitasuna hipotekatzen duela. Hala, epe horretako enplegua sortzeko tasa batez beste %2,5etik gora izan da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta epe horretako erdiko urteak izan dira ekarpen horretan nabarmendu direnak. Dinamika horren ondorioz, eta emakumeak lan-merkatu sartzearen ondorioz izandako biztanleria aktiboaren hazkundera izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasak nabarmen egin du behera azken hamarkadan.

Evolución de las principales macromagnitudes de la C.A. de Euskadi. Tasa real de variación

2

Euskal AEko makromagnitude nagusien bilakaera. Aldakuntzaren tasa erreala

	BPG erreala PIB real	Enplegua Empleo	Langabezia-tasa* Tasa de paro	KPI** IPC
1995	3,5	2,2	23,8	4,5
1996	3,2	2,1	22,4	3,5
1997	4,8	2,1	21,1	2,2
1998	5,9	5,4	17,8	2,3
1999	4,9	4,7	15,5	3,0
2000	5,2	3,8	12,1	3,8
2001	3,2	3,6	9,7	3,4
2002	2,3	1,6	9,4	3,9
2003	3,1	2,2	9,5	2,6
2004	3,3	1,0	9,7	3,2

* Biztanleria aktiboarekiko % / % sobre población activa.

** Aurreko abenduarekiko hazkunde-tasa / Tasa de incremento sobre diciembre anterior.

Iturria: Eustat eta INE (KPI).

Fuente: Eustat e INE (IPC).

En el cuadro 2 se puede apreciar la magnitud del salto cuantitativo en las tasas de paro que desciende de casi un 24% del total de la población activa en 1995 al 9,7% en el año 2004³. En cualquier caso, la magnitud del crecimiento económico vasco ha sido lo suficientemente importante como para que haya tenido lugar una difusión de su impacto positivo sobre otras variables económicas y en particular sobre el empleo. De hecho, las tasas de crecimiento del PIB de la C.A. de Euskadi durante estos años se han situado, con las excepciones puntuales de 1996 y 2004, por encima de las de países occidentales como Estados Unidos y Japón (gráfico 1).


Otro tanto se puede afirmar al comparar la evolución de las tasas de variación interanuales del PIB de la C.A. de Euskadi y las de la Unión Europea (15 miembros). La evolución de las dos tasas sigue una trayectoria común como consecuencia lógica de la creciente integración de la economía vasca en la europea como observaremos más adelante, de manera que los años alcistas (1997-2000 y 2004) y los recesivos (1995-1996 y 2001-2002) vienen a coincidir en los dos ámbitos espaciales (la excepción corresponde a 2003). Ahora bien, las tasas de variación del producto vasco se mantienen

2. taulan ikus daiteke langabezia-tasaren jauzi kuantitatiboaren neurria; 1995. urtean biztanleria aktiboaren %24 zegoen langabezian eta 2004. urtean %9,7 ziren³. Dena dela, Euskadiko ekonomiaren hazkundera nahikoa handia izan da, beste ekonomia aldagai batzuetan eta batez ere enpleguan eragina izateko. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko azken urteetako BPGren hazkundera Ameriketako Estatu Batuak eta Japoniak izandakoa baino handiagoa izan da, 1996. eta 2004. urteetako salbuespenak izan ezik (1. grafikoa).

Beste horrenbeste baieztatu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko (15 kide) BPGren urterik urteko aldaketa-tasaren bilakaerak konparatuta. Bi tasen bilakaerak pareko ibilbidea jarraitzen dute, geroago ikusiko dugun bezala, Euskadiko ekonomia Europakoan gero eta gehiago txertatzearen ondorioz. Hala, goranzko joera duten urteak (1997-2000 eta 2004) eta beherazkoa dutenak (1995-1996 eta 2001-2002) bat egiten dute bi espazio-eremuetan (salbuespena 2003. urtea da). Hala ere, Euskadiko produktaren aldaketa-tasak Europar Batasuneko baina puntu bat

³ Para profundizar en las razones de esta evolución y las características del mercado de trabajo de la C.A. de Euskadi acudir al capítulo que sobre el mismo ofrece este informe socioeconómico.

³ Bilakaera horren arrazoietan eta Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren ezaugarrietan sakontzeko, horri buruz sozioekonomiari buruzko txostenak eskaintzen duen kapitulura jo.



Iturria: Eustat, Eurostat eta INE.
Fuente: Eustat, Eurostat e INE.

a lo largo del periodo entre un punto y punto y medio por encima del correspondiente a la media de la UE. Este importante margen diferencial es consecuencia directa de la importancia que todavía sigue teniendo para los productos vascos el mercado español. La fuerte demanda interna ha sido, además de otros aspectos tales como la pujanza del sector de la construcción, el factor clave que explica el fuerte crecimiento español en relación a la media europea. Así se explica que apenas exista una diferencia significativa al comparar las tasas de variación del PIB de la C.A. de Euskadi y las del Estado, sobre todo si observamos en el gráfico 1 la evolución de las mismas durante el último quinquenio.

Esta constatación de la existencia de una importante diferencia en el ritmo de crecimiento del PIB real está adelantando una de las claves recientes en la evolución de la economía de la C.A. de Euskadi, la tendencia a la convergencia con respecto a los estándares de producto y renta de la Unión Europea. Es cierto que el reciente ingreso de los diez nuevos socios provoca una disminución en los valores medios de buena parte de los indicadores económicos, incluida la renta y el producto. Pero el proceso de convergencia real de la economía vasca con las del entorno viene a ser un hecho insoslayable, independientemente de las razones y de su plasmación en otros aspectos socioeconómicos y de la realidad estructural de la economía vasca.

Así lo muestra en el gráfico 2 el indicador que relaciona la evolución del PIB por habitante de la C.A. de Euskadi con el de la media de la Unión Europea (25 miembros) a lo largo del periodo 1995-2004. Este indicador muestra la posición relativa del PIB per cápita de la C.A. de Euskadi con respecto del PIB per cápita medio de la Unión Europea al que por convención le hemos otorgado un valor de 100 cada año. A la luz de este índice se observa que partiendo de una posición de renta por persona cercana a la media de la Unión Europea en 1995 y 1996, el importante crecimiento que se produce a partir de 1997 y el crecimiento permanente por encima de la media europea, han contribuido a que el nivel del indicador de

eta puntu eta erdi gorago mantentzen da aztertzen ari garen epean. Marjina diferentzial hori gertatzen da Euskadiko produktuentzat Espainiako merkatuak garrantzia handi-handia daukalako oraindik. Eraikuntza sektorearen goranzko joerarekin batera, barne-eskariaren indar handiak erakusten du zergatik hazi den hainbeste Espainiako ekonomia, Europako batez bestekoarekin alderatuta. Horrela ulertzen da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako BPGren aldaketa-tasaren artean alde handirik ez egotea, batez ere 1.º taulan azken bosturtekoan izan duten bilakaerari erreparatzen badiogu.


BPGren benetako hazkundean dagoen alde handia egotearen konstatazio horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren bilakaeraren giltzarri nagusietako bat aurreratzen du, Europar Batasuneko errenta eta produktu estandarrekiko elkargantzea. Egia da hamar kide berri sartzeak ekonomia adierazlearen zati handi baten batez besteko balioen jaitziera eragin duela, errenta eta produktua barne. Baina Euskadiko ekonomiak ondoan dituenekiko daukan benetako elkargantzea jazoera saihestezina da, arrazoiak, beste arlo sozioekonomiko batzuetar islatzea eta Euskadiko ekonomiaren egiturazko errealitatea alde batera utzita.

Horrela erakusten du 2. grafikoan 1995-2004 epean Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleko BPGren eta Europar Batasuneko (25 kide) batez bestekoaren bilakaerak harremanetan jartzen dituen adierazleak. Adierazle horrek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleko BPGren kokapen erlatiboa adierazten du Europar Batasuneko biztanleko BPGrekiko, eta azken horri 100eko balioa ematen diogu. Indize horri erreparatuta ikusten da 1995. eta 1996. urteetan Europar Batasuneko pertsonako errenta batez bestekotik nahiko hurbil abiatzen dela, eta 1997. urtetik aurrera, hazkunde handia gertatzen dela, Europar Batasuneko batez bestekotik gorakoa. Horrek lagunduta, Euskal Autonomia Erkidegoko biztan-

Evolución del PIB per cápita (PPC)
de la C.A. de Euskadi.
Índice con respecto a la media de la UE
y a la del Estado

2

**Euskal AEko biztanleko BPGren (EAP)
bilakaera. EBko eta Estatuko batez
bestekoarekin alderatutako indizea**



Iturria: Eustat, Eurostat eta INE.

Fuente: Eustat, Eurostat e INE.

renta per cápita de la C.A. de Euskadi se sitúa al final del periodo un 20% por encima de la media de los 25 países miembros. Ésta es precisamente la brecha que existe entre la renta media por persona en el Estado y la de la C.A. de Euskadi. En lo que respecta a este índice, construido de manera análoga al anterior de la Unión Europea, la distancia también es algo mayor aunque no ha aumentado de manera significativa a lo largo de estos años ya que, como ha sido señalado, el ritmo de crecimiento del PIB en los dos ámbitos ha sido similar. Es evidente, pues, que a lo largo de estos años asistimos a un proceso de convergencia en renta entre la economía española y la media de la Unión Europea cuyo origen tiene que ver con la situación coyuntural de un mayor incremento del PIB generado en el Estado y con un redimensionamiento a la baja de la renta media de la UE a partir del ingreso de los diez nuevos países miembros. En esta nueva ordenación, la C.A. de Euskadi mantiene o incluso amplía ligeramente su posición en términos de renta per cápita con la media estatal y, por lo tanto, mejora notablemente la misma con respecto a la media de la UE.

leko errentaren adierazlea 25 kideko Europar Batasuneko baina hogeit hamar puntu handiagoa da epearen amaieran. Hain zuzen, horixe da pertsonako errentaren batez bestekoan Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren artean dagoen etena. Indize horri dagokionez, Europar Batasuneko bezala eraikia, bien arteko distantzia apur bat handiagoa da, nahiz eta azken urteotan gehiegi ere ez handitu, adierazi den bezala, BPGren hazkundea antzekoa izan delako. Beraz, nabaria da urte hauetan Espainiako ekonomiako errentaren eta Europar Batasuneko batez bestekoaren artean elkarganatze-prozesua gertatzen ari dela; Estatuan gertatu den eraturako BPGren hazkunde handiagoaren kointura egoera eta, beste hamar kide sartzearekin batera Europar Batasuneko batez besteko errentak izandako jaitsiera dira horren arrazoia. Ordenazio berri horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak bere kokapenari eusten dio eta aldea ere handitzen dio Estatuko batez bestekoari, eta, beraz, Europako batez bestekoarekin daukan kokapena nabarmen hobetzen du.

3. LOS FACTORES DINAMIZADORES DE DEMANDA

El crecimiento del producto por encima de las economías del entorno es un aspecto característico de la coyuntura reciente de la economía de la C.A. de Euskadi. Es conveniente ahora hacer una labor de reflexión sobre los factores que han posibilitado este significativo crecimiento. Este ejercicio permite observar en qué medida la economía vasca se aproxima o se aleja de las economías del entorno en lo relativo a la trayectoria de crecimiento. Para ello nos centramos en este apartado en el análisis de los componentes de la demanda agregada y su grado de responsabilidad en la evolución del producto generado en la C.A. de Euskadi.

Al disociar los componentes que activan la demanda interna de la externa se obtiene una primera aproximación al efecto dinamizador de ambas. En el cuadro 3 se puede apreciar cómo el agregado de la demanda exterior –resultado de ponderar las exportaciones con las importaciones– exhibe unas tasas de crecimiento reales negativas a lo largo del periodo con la excepción de 2000 y 2004. Esto se produce a pesar del fuerte crecimiento de las exportaciones entre 1997 y 2000, al igual que en 2004, puesto que en esos mismos años el ritmo de crecimiento de las importaciones también acompaña a aquéllas. Esta inflexión en la trayectoria de las tasas de exportación y de importación está estrechamente vinculada, entre otros elementos, a la evolución de las paridades de las monedas europeas primero y más tarde la del euro con el dólar. Aunque en el próximo apartado se abunde más en el análisis del comercio exterior vasco, conviene destacar de entrada que la demanda exterior no ha jugado durante estos años un papel determinante en el crecimiento económico de la C.A. de Euskadi.

*Escenario macroeconómico de la C.A. de Euskadi
(Tasa real de variación interanual)*

3

Euskal AEko makroekonomia-egoera (urterik urteko aldakuntza-tasa erreala)

	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Barruko eskaria / Demanda interior										
Kontsumo pribatua / Consumo privado	0,7	1,7	3,0	4,3	4,4	3,3	2,6	2,6	3,7	2,4
Kontsumo publikoa / Consumo público	1,0	2,5	-0,1	2,5	3,7	0,1	8,2	2,6	5,8	3,1
Inbertsioa (FBC) / Inversión (FBC)**	16,5	8,9	11,5	12,5	7,1	10,1	5,2	4,9	5,0	4,9
Kanpoko eskaria / Demanda exterior	-0,3	-0,2	0,4	-0,1	-0,1	0,6	-0,8	-0,8	-0,9	0,3
Esportazioak / Exportaciones*	1,7	4,8	10,7	10,8	6,6	8,8	1,7	-0,8	-0,8	8,3
Inportazioak / Importaciones*	2,3	5,2	10,2	11,0	6,9	7,8	3,0	0,5	1,2	8,4
BPG merkatu-prezioak PIB precios mercado	3,5	3,1	4,8	5,9	4,8	5,2	3,2	2,3	3,1	3,3
BGG lehen sektorea / PIB primario	6,1	1,2	3,7	7,0	3,2	-20,4	10,3	-4,0	-5,7	16,8
BPG industria / PIB industria	5,0	2,2	7,6	9,0	6,7	8,5	2,1	0,3	1,2	2,5
BPG eraikuntza / PIB construcción	0,9	-0,5	2,2	4,8	5,5	7,7	9,2	4,7	4,9	5,4
BPG zerbitzuak / PIB servicios	3,3	3,8	3,7	4,0	3,7	3,4	3,1	2,3	3,2	3,1

* Ondasunena eta zerbitzuena. / De bienes y servicios.

** Izakinen aldaketa jasotzen du. / Incluye la variación de existencias.

Iturria: Eustat, Kontu Ekonomikoak.

Fuente: Eustat, Cuentas Económicas.

Es necesario, por lo tanto, acudir a los componentes de la demanda interior para entender el notorio incremento del producto durante este periodo. A pesar de que no informa sobre el peso ponderado de cada componente, el cuadro 3 ofrece una panorámica clara de la responsabilidad de los tres com-

3. ESKARIAREN FAKTORE DINAMIZATZAILEAK

Bere produktua inguruan dituen ekonomien gaintik haztea Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren hurbileko koiunturaren ezaugarri azpimarragarria da. Hazkunde aipagarri hori eragin duten faktoreen inguruan hausnarketa egitea komenigarria da. Ariketa honek laguntzen digu ikusten zein neurritan Euskadiko ekonomia hurbiltzen edo aldentzen den inguruan dituen ekonomietatik, hazkunde ibilbideari dagokionez. Hori dela eta, atal honetan eskari agregatuaren osagaietan eta Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako produktuen bilakaeran daukaten erantzukizunean zehaztuko dugu analisia.

Barneko eta kanpoko eskaria aktibatzen duten osagaiak be-reiztean, bien eragin dinamizatzailearen lehenengo hurbilketa bat egingo dugu. 3. taulan ikus daiteke kanpoko eskariaren agregatuak –esportazioak eta inportazioak haztatzearen ondorioa– benetako hazkunde-tasa negatiboak dituela aztertzen ari garen epean, 2000. eta 2004. urteetan izan ezik. Eta hori gertatzen da 1997., 2000. eta 2004. urteetan esportazioek hazkunde handia izan zuten arren, urte horietan inportazioen hazkunde esportazioenaren parekoa izan zelako. Esportazio- eta inportazio-tasen ibilbidearen inflexio hori Europako moneten paritateen bilakaerari oso lotuta dago lehenengo, eta geroago, euroaren eta dolarraren arteko paritateari. Hurrengo atalean gehiago sakonduko da Euskadiko nazioarteko merkataritzaren analisisian, baina azpimarratu beharra dago kanpoko eskariak ez duela garrantzia handiegirik izan Euskal Autonomia Erkidegoaren hazkunde ekonomikoan.

Beraz, beharrezkoa da barruko eskariaren osagaien erreparatzea, epe honetan produktuak izan duen hazkunde esanguratsua ulertzeko. Osagai bakoitzak daukan pisua zein den ez digu esaten, baina 3. taulak barruko eskariaren hiru osagaien BPGren dinamismoan duten erantzukizuna zein den

ponentes de la demanda interna en el dinamismo del PIB. Llama la atención la evolución de la tasa de variación interanual de la inversión –reflejadas en la Formación Bruta de Capital– por las cuantías tan elevadas que presentan a lo largo de prácticamente todo el periodo. Las tasas de incremento de la inversión son especialmente elevadas en la primera mitad del mismo y vienen a coincidir en general con los años de mayor incremento del producto interior bruto. En el último tramo del periodo los niveles relativamente débiles en los tipos de interés oficiales han contribuido a que la coyuntura internacional recesiva no tuviera un impacto tan negativo en la evolución de la inversión en la C.A. de Euskadi. El esfuerzo inversor de la economía de la C.A. de Euskadi durante esta época es, por lo tanto, muy elevado y ha impulsado activamente el crecimiento económico o, en su caso, ha impedido un comportamiento recesivo de la economía derivado de la contención en el consumo (es el caso del año 1995 y en menor medida de 1997 o 2000). Además, en la medida en que la inversión es un flujo que contribuye a incrementar el stock de capital de las empresas, este importante incremento de la formación bruta de capital en la economía vasca incide a través de adquisiciones de activos fijos tangibles e intangibles en el aumento tanto de la capacidad productiva futura como en la mejora de la posición competitiva de las empresas vascas.

Por su parte, el consumo privado ha sido un factor de activación de la demanda significativo durante buena parte de estos años. El efecto dinamizador del consumo privado se ha centrado en los años más expansivos (1997-2000) y el año 2003. Durante el resto del periodo destaca la atonía de los años 1995 y 1996 y el mantenimiento de unas tasas de crecimiento más elevadas que en el resto de la UE a lo largo de los últimos cuatro años. La evolución de los tipos de interés oficiales a lo largo de estos años tampoco es ajena a la evolución del consumo privado, puesto que durante los primeros años los niveles de aquellos fueron relativamente elevados y durante los últimos años se han estabilizado a la baja –en particular los tipos de interés reales en todo el Estado–, lo que ha posibilitado que la evolución del consumo privado no haya sufrido una reducción semejante a la de otros territorios de la UE como consecuencia de la contención de las rentas salariales asociada a la política de estabilización.

La evolución del consumo público no ha tenido un carácter expansivo durante este periodo. Durante la mayor parte del mismo y, en particular, hasta la entrada en vigor de la moneda única la dinámica del consumo público se vió constreñida, también en la C.A. de Euskadi, por la política de estabilización y ajuste que instrumentó la Unión Europea para la puesta en marcha de la convergencia monetaria (cuadro 3). No obstante, la orientación más expansiva de la política monetaria dirigida por el Banco Central Europeo y la relajación en la aplicación de los criterios monetarios y financieros una vez alcanzada la unión monetaria también tuvieron un efecto beneficioso en el ritmo de crecimiento del consumo público desde el 2001 en la C.A. de Euskadi. En particular, las tasas de crecimiento del consumo público de 2001 y 2003 por encima del consumo privado y de la inversión, inducen a considerar que este fuerte ritmo de expansión de estos dos años es un factor decisivo para entender que la C.A. de Euskadi mantuviera unas tasas de crecimiento del PIB significativas cuando la mayoría de las economías europeas entraban en un periodo recesivo. Aunque sea el de menor peso en el PIB vasco de los tres componentes de la demanda interna, el consumo público ejerció un efecto de impulso moderado sobre la demanda agregada y el producto generado, en particular durante los cuatro últimos años considerados.

argiro erakusten du. Urterik urteko inbertsioaren aldaketa-tasak izandako bilakaerak arreta deitzen du –Kapital-eraketa Gordinean islatua–, epe guztian daukan kopuru handiengatik. Epearen lehen erdian, inbertsioaren hazkunde-tasak handiak dira, eta, oro har, barne produktu gordinaren hazkunde handienaren garaiarekin bat egiten du. Epearen azken zatian, interes-tasa ofizialen maila ahulek eragin dute nazioarteko atzerako joerako ekonomia-koiunturak horrenbesteko eraginik ez izatea Euskal Autonomia Erkidegoko inbertsioaren bilakaeran. Horrenbestez, epe honetan Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak egindako inbertsio ahalegina oso handia da edo, bere kasuan, kontsumoaren euspenak (1995. urteko eta 1997. eta 2000. urteko kasuak dira, azken bietan txikiagoa izan bazen ere) eragin zezakeen ekonomiaren atzeraldia saihestu du. Gainera, enpresetako kapital-stocka handitzen laguntzen duen fluxua da inbertsioa, eta Euskadiko ekonomian izandako kapital-eraketa gordinaren hazkundeak etorkizuneko produkzio gaitasunean zein Euskadiko enpresen lehiakortasun-kokapena hobetzen laguntzen du, aktibo finko ukigarriak eta ukiezinak eskuratzearen bitartez.

Bestalde, kontsumo pribatua eskaria dinamizatzeko faktore garrantzitsua izan da urte hauetan. Kontsumo pribatuaren eragin dinamizatzailea urte hedakorrenetara (1997-2000) eta 2003. urtera mugatu da. Epearen gainontzeko urteetatik 1995. eta 1996. urteetako atonía eta gainontzeko lau urteetan hazkunde-tasa Europar Batasuneko batez bestekotik gorakoa izan dela azpimarratu beharra dago. Urte hauetan interes-tasa ofizialek izan duten bilakaera kontsumo pribatuak izandakoarekin lotuta dago, lehenengo urteetan interes-tasa ofizialak oso handiak zirelako eta azken urteetan beherako joerarekin egonkortu direlako –batez ere benetako interes-tasak Estatu osoan–; horrek eragin du kontsumo pribatuaren bilakaerak atzeraldi handirik ez izatea, EBko beste lurralde batzuetan gertatu ez den bezala, horietan soldata-errentak euspenea egonkortze politikarekin lotu dituztelako.

Kontsumo publikoaren bilakaerak ez du izaera hedagarri bat izan aztertzen ari garen epean. Horren zati handi baten, eta, batez ere, moneta bakarra indarrean jarri arte, kontsumo publikoaren dinamika mugatua egon zen Euskal Autonomia Erkidegoan, moneta elkarganatzeari abiatu ahal izateko Europar Batasunak ezarri zuen egonkortze eta egokitze politikarengatik (3. taula). Hala ere, Europako Banku Zentralaren moneta-politika hedagarriagoaren eta behin moneta-batasuna lortu ostean moneta- eta finantza-irizpideak ezartzerako orduan izan zen erlaxazioaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumo publikoaren hazkunde erritmoa areagotu egin zen, 2001. urtetik aurrera. Azpimarratzekoa da 2001. eta 2003. urteetan kontsumo publikoaren hazkundeak kontsumo pribatuarena eta inbertsioarena baino handiagoa izan zela, eta horrek pentsarazten digu bi urte horietako hedapen erritmo handia faktore erabakigarria izan zela Euskal Autonomia Erkidegoak BPGren hazkunde-tasa esanguratsuak mantentzeko, Europako ekonomia gehienak atzeraldian sartu zirenean. Barruko eskariaren hiru osagaietatik Euskadiko BPGean eragin txikiena duena izan arren, kontsumo publikoak eskaria agregatuan eta eraturako produktuan bultzada ertaina eragin zuen, batez ere aztertutako azken lau urteetan.


En cualquier caso, para entender la capacidad de dinamizar la demanda en toda su dimensión es preciso contemplar el peso específico en relación al PIB que tienen sus distintos componentes. Es lo que analizamos en los gráficos 3 y 4 para el caso de la inversión y el consumo agregado, respectivamente, y lo hacemos comparando la evolución del porcentaje de ambos componentes en relación al PIB para el caso de la C.A. de Euskadi, el de la Unión Europea (con 25 miembros) y el del Estado español.

Dena dela, eskaria dinamizatzeko daukan gaitasuna bere osotasunean ikusteko, bere osagaiak BPGean daukaten eragin zehatza zein den jakin behar da. Horixe aztertzen dugu 3. eta 4. taulatan inbertsioaren eta kontsumo agregatuaren kasuetan, eta hori egiten dugu bi osagaien BPGean daukaten portzentajearen bilakaera zein den erreparatuz egiten dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko, Europar Batasuneko (25 kide) eta Espainiako estatuko datuak erabilita.

Evolución de las tasas de inversión (% FBCF/PIB)

3

Inbertsio-tasen bilakaera (% KFEG/BPG)



Iturria: Eustat eta Eurostat.
Fuente: Eustat y Eurostat.

La inversión ha sido uno de los pilares básicos sobre el que se ha sustentado el crecimiento del producto de la economía de la C.A. de Euskadi, tal y como ha sido comentado. En el gráfico 3 se puede observar la trayectoria reciente en la ratio entre formación bruta de capital fijo y PIB de la C.A. de Euskadi, del Estado y de la Unión Europea. Este coeficiente indica, por un lado, qué parte del nuevo producto generado se destina a la renovación y ampliación del capital fijo, posibilitando una ampliación en la capacidad productiva, y por el otro también muestra la magnitud de producto que se puede obtener con la inversión realizada. En este sentido, a pesar de la brecha existente en el año base, queda patente que la evolución de este indicador es prácticamente similar en la C.A. de Euskadi y en el Estado español. En definitiva, partiendo de una relación del 16% de inversión sobre el PIB, al final del periodo la inversión contribuía con un 24,5% al producto generado en la C.A. de Euskadi. Esto es coherente, en buena lógica, con el resultado que se extrae de la comparación en las tasas de variación de ambos índices que se encuentran en el cuadro 3, ya que las tasas de crecimiento de la FBC permanecen por encima de las del PIB a lo largo de todos los años. Esta misma conclusión se puede extraer a partir de la información que ofrece el cuadro 4. Aquí el indicador que relaciona formación bruta de capital fijo y valor añadido bruto como media para los subperiodos 1995-1999 y 2000-2004 visualiza una diferencia de dos o tres décimas entre ambos territorios, favorable al Estado en la segunda mitad de los noventa y a la C.A. de Euskadi en la primera mitad de la actual década.

Inbertsioa izan da Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomiaren produktu-hazkundera sustengatu den oinarri nagusietako bat, azaldu den bezala. 3. grafikoan Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europar Batasuneko kapital finkoaren eraketa gordinaren eta BPGren arteko ratioaren hurbileko ibilbidea ikus daiteke. Koeffiziente horrek erakusten du, alde batetik, eraturako produktuaren zati bat kapital finkoa berritzera eta zabaltzera bideratzen dela, produkzio gaitasuna zabaltzea posible eginez; bestalde, egindako inbertsioarekin lor daitekeen produktuaren magnitudea erakusten du. Hala, oinarriko urtean agertzen den etena hori egon arren, adierazle horrek Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainiako estatuan izan duen bilakaera antzekoa izan dela agerian geratzen da. Azken baten, BPG eta inbertsioaren arteko harremana %16koa izatetik abiatuta, epearen amaieran inbertsioa Euskal Autonomia Erkidegoan eraturako produktuaren %24,5ean eragiten zuen. Logikari jarraituta, hori koherentea da 3. taulan agertzen diren bi indizeen aldaketa-tasak alderatzen lortzen den emaitzarekin, FBCren hazkunde-tasak BPGrenaren gainetik daudelako azken urteetan. Ondorio bera lor daiteke 4. taulak ematen duen informaziotik. Hemen, 1995-1999 eta 2000-2004 azpi-epeetako kapital finkoaren eraketa gordina eta balio erantsi gordina alderatzen dituen adierazleak bi lurraldeen arteko bi eta hiru hamarrenetako aldeak erakusten du; alde hori Estatuaren aldekoa da 90ko hamarkadako bigarren erdian eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aldekoa lehenengo erdian.

Para finalizar este apartado analizamos brevemente un aspecto de interés en el contexto de la dinámica de cambio estructural: las interrelaciones sectoriales. Nos centramos, pues, a continuación en el estudio de la evolución de la articulación interna de la economía de la C.A. de Euskadi en la última década y en la clasificación de las ramas de actividad sobre la información que ofrecen las tablas Input-Output correspondientes a los años 1995 y 2003 (para una sectorización a 28 sectores de actividad).

El propósito del análisis de la articulación interna consiste en hacer explícitas las relaciones existentes entre los distintos sectores de actividad de la economía para poder cuantificar la interdependencia entre los mismos. Para ello se recurre al estudio de las ligazones sectoriales directas que hacen referencia a la capacidad potencial del sector para estimular y dinamizar a otros sectores de la economía. De esta forma la mayor presencia de sectores con elevadas ligazones tendría un mayor potencial de impacto en el crecimiento económico. Aquí tenemos en cuenta dos tipos de ligazones directas: las ligazones hacia atrás y las ligazones hacia delante. Las primeras miden la capacidad de un sector para arrastrar directamente a otros a través de sus consumos intermedios, ejerciendo un estímulo en la actividad de otros sectores. Las segundas miden la capacidad de un sector para estimular a otros sectores a través de su oferta a los demás sectores¹³.

El cuadro 11, muestra un primer resultado de este análisis de ligazones con la comparación de los valores de arrastre medio del total de la economía tanto hacia atrás como hacia delante para 1995 y 2003. Tomando como principal referencia los arrastres interiores que son los más apropiados para este tipo de estudio, podemos observar, en primer lugar, que los arrastres hacia atrás fueron en 2003, al igual que en 1995, ligeramente superiores en relación a los arrastres hacia delante.

tore egituran pisu erlatiboa irabazi dute azken urteotan, teknologia eduki txikiena duten jardueren aurrean. Zerbitzueta-ko eta manufacturetako teknologia eduki handiko jarduerak duten pisua Estatuan dutenaren antzekoa da, baina Euskadin teknologia eduki handiko manufactura-jarduerak duten pisua handiagoa da, bere produkzio-egituran manufactura-sektoreak daukan pisua handiagoa delako.

Atal hau amaitzeko, egiturazko aldaketa-dinamika egoeran garrantzia daukan puntu bat labor-labor azalduko dugu: sektoreen arteko harremanak. Horrenbestez, azken hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren barne-artikulazioaren bilakaera aztertuko dugu jarraian; jarduera-adarren sailkapena ere egingo dugu, 1995-2003 urteen arteko Input-Output taulek (28 jarduera-sektore sektoretan jartzeko) eskaintzen duten informaziotik abiatuta.

Barne-artikulazioaren analisiaren helburua da ekonomiaren jarduera-sektoreen artean dauden harremanak agerikoak bihurtzea, horien arteko interdependencia kuantifikatu ahal izateko. Horretarako, sektoreen arteko lotura zuzenen azterketa jotzen da. Lotura zuzen horiek erakusten dute sektore batek zenbaterako gaitasuna duen beste sektore bat bizkortzeko eta dinamizatzeko. Hala, lotura asko dituzten sektore asko badago hazkunde ekonomikoa eragiteko aukera handiagoak egongo dira. Hemen bi motatako lotura zuzenak hartzen ditugu kontuan: atzeranzko loturak eta aurreranzko loturak. Lehenengoek neurtzen dute bitarteko kontsumoen bitartez sektore batek zenbaterainoko gaitasuna duen beste sektore batzuk atzetik erakartzeko, beste kontsumoetan jarduera bizigarria eraginez. Egiten duen eskaintzaren bidez sektore batek besteak bizkortzeko zenbaterainoko gaitasuna duen neurtzen du bigarrenak¹³.

11. taulak lotura horien analisisen lehenengo emaitza jasotzen du; ekonomiaren batez besteko arraste-balioen gaitasuna aurrerantz zein atzerantz jasotzen du, 1995. eta 2003. urteen artean. Erreferentzia gisara barruko arrasteak hartuko ditugu, azterketa mota honetarako aiposenak direlako. Hori horrela eginda, konturatuko gara 1995. urtean atzeranzko arrasteak aurreranzkoak baino apur bat gehiago izan zirela, 2003. urtean gertatzen den bezala. Gainera, Euskal Autonomia Er-

Evolución del arrastre medio directo de la C.A. de Euskadi

11

Euskal AEko batez besteko arrastearen bilakaera

	BARNEKOA INTERIOR			OSOA TOTAL		
	1995	2003	aldak. 03-95 (%-tan) var. 03-95 (%)	1995	2003	aldak. 03-95 (%-tan) var. 03-95 (%)
Atzeranzko arrastea / Arrastre hacia atrás	0,327	0,370	13,2	0,527	0,564	7,2
Aurreranzko arrastea / Arrastre hacia delante	0,319	0,366	15,0	0,392	0,437	11,5

Iturria: Eustat, Industria Kontuak.
Fuente: Eustat, Cuentas industriales.

¹³ Para las definiciones y metodología de las ligazones sectoriales directas ver Prado y Domínguez (1999). No se tienen en cuenta aquí las ligazones totales que incluyen también las indirectas, provocadas por el efecto de encadenamiento inducido típico del análisis input-output.

¹³ Sektore lotura zuzenen definizioak eta metodologia ezagutzeko, begiratu Prado eta Domínguez (1999). Hemen ez dira kontuan hartzen zeharkakoak ere jasotzen dituzten lotura osoak, input-output analisisan ohikoa den kateatze efektuak eragindakoaren ondorioz.

Además, la economía de la C.A. de Euskadi conoce un notable aumento de ambos arrastres a lo largo de este periodo por lo que se produce una creciente relación intersectorial interna y, en definitiva, una mayor cohesión de la estructura productiva local. Otro resultado es el que se extrae de la comparación entre la evolución de las ligazones interiores y las totales que incluyen también las relaciones sectoriales exteriores. En síntesis, las interrelaciones interiores en ambas direcciones avanzan muy por encima de las totales (en definitiva, de las exteriores). Esto significa que el origen y el destino de los flujos intersectoriales tiene un contenido cada vez más regional.

Otro de los aspectos del análisis de las ligazones se refiere a la clasificación de los sectores por categorías según su capacidad de arrastre. En función de los valores medios de los arrastres hacia atrás y hacia delante se obtiene la clasificación de Chenery-Watanabe en cuatro tipos de actividades. El cuadro 12 ofrece el detalle de esta clasificación para la C.A. de Euskadi en 2003.

Las ramas primario-intermedias son las de alta ligazón hacia adelante y baja hacia atrás, es decir las que tienen una mayor vinculación con otros sectores a través de sus ventas. En esta categoría se encontraban en 2003 las ramas que aparecen clasificadas como de tipo I en el cuadro 12, donde aparecen recogidas las actividades del sector primario y minero-energético, además de la banca y seguros y la industria no metálica como única rama de actividad manufacturera.

kidegoko ekonomiak bi arraste horien hazkunde handia izan zuen epe horretan, eta horren ondorioz, sektoreen arteko barne-harreman handia sortu zen, eta, azken baten, tokiko produkzio-egituraren kohesio handiagoa gertatu zen. Bestalde, barne loturak eta lotura osoak alderatzetik ateratzen dena beste ondorio bat da, eta horien barruan kanpoko sektore harremanak ere jasotzen dira. Laburbilduz, bi norabidetako barne-harremanek osoek (azken baten, kanpokoak) baino askoz gehiago egin dute aurrera. Horrek esan nahi du sektoreen arteko fluxuen jatorriak eta helmugak eskualdeko eduki gero eta handiagoa duela.

Loturen analisiaren beste puntu batek sektoreak beren arraste gaitasunaren arabera sailkatzean datza. Atzeranzko eta aurreranzko arrasteen batez bestekotik Chenery-Watanabe sailkapena lortzen da lau jarduera motatan. 12. taulak 2003. urteko Euskal Autonomia Erkidegorako sailkapen hori jasotzen du.

Lehen eta bitarteko mailako adarrak aurreranzko lotura handia eta atzeranzko txikia dutenak dira; hau da, beren salmenten bitartez beste sektoreekin harreman handia dutenak dira. 2003. urtean, kategoria honetan zeuden 12. taulan I.go motako adar gisa sailkatutakoak, eta horren barruan jasotzen dira lehen sektoreko eta meatzaritza-energia jarduerak, eta manufaktura jarduera bakarra Industria ez-metalikoa da, bankuak eta aseguruak batera.

Relaciones intersectoriales de la economía de la C.A. de Euskadi (2003)

12

Euskal AEko ekonomiaren sektoreen arteko harremanak (2003)

Barne-lotura zuzenen Chenery-Watanabe sailkapena Clasificación Chenery-Watanabe de ligazones internas directas			
I.go mota Lehen sektoreko eta bitarteko adarrak Tipo I Ramas Primario Intermedias	II. mota Bitarteko manufaktura adarrak Tipo II Ramas de Manufactura Intermedias	III. mota Azken eskaera adarrak Tipo III Ramas de Demanda Final	IV. mota Lehen sektoreko azken produktzio adarrak Tipo IV Ramas de Producción Primaria Final
Nekazaritza eta Abeltzaintza Arrantza eta akuikultura Petrolio eta gasa ateratzea Mineral metalikoak eta ez-metalikoak Industria ez-metalikoa Bankuak eta aseguruak Agropecuario Pesca y acuicultura Extracción de petróleo y gas Minerales metálicos y no metálicos Industria no metálica Banca y seguros	Zuraren industria Energia elektrikoa, gasa eta ura Eraikuntza Enpresentzako zerbitzuak Garraioa eta komunikazioak Industria de la madera Energía eléctrica, gas y agua Construcción Servicios a empresas Transporte y comunicaciones	Larrugintza eta zapatagintza Metalurgia eta Artikulu metalikoak Makineria Garraio materiala Ostalaritza Cuero y calzado Metalurgia y artículos metálicos Maquinaria Material de transporte Hostelería	Elikadura Ehungintza eta jantzigintza Industria kimikoa Kautxua eta plastikoa Material elektrikoa Beste manufaktura batzuk Merkataritza eta konponketa Administrazio publikoa Hezkuntza Osasuna eta gizarte-zerbitzuak Zerbitzu pertsonalak Etxeko zerbitzua Alimentación Textil y confección Industria química Caucho y plástico Material eléctrico Otras manufactureras Comercio y reparación Administración pública Educación Sanidad y servicios sociales Servicios personales Servicio doméstico

Iturria: Eustat, 2003ko Input-Output Taulak.
Fuente: Eustat, Tablas Input-Output 2003.

El segundo tipo de actividades son las de manufactura intermedia conformado por ramas con elevada ligazón tanto hacia adelante como hacia atrás. Son las actividades con mayor capacidad tractora y de estímulo para la economía regional y, por lo tanto, las más estratégicas para el desarrollo económico. En el año 2003 eran cinco las ramas de manufactura intermedia en la C.A. de Euskadi, dos de servicios –servicios a empresas y transporte y comunicaciones–, la construcción, energía eléctrica, gas y agua y solamente una rama industrial –industria de la madera–.

La categoría de demanda final está constituida por ramas de baja ligazón hacia delante y alta hacia atrás. Tienen una alta capacidad tractora ya que realizan un alto consumo regional de inputs intermedios, pero gran parte de su producto se orienta hacia la demanda final. En esta situación se encontraban la hostelería y cuatro ramas industriales de las cuales tres –metalurgia, maquinaria y material de transporte– representaban más de la mitad del producto generado por el sector industrial de la C.A. de Euskadi.

El cuarto tipo es el de las ramas de producción primaria final, con baja ligazón en ambos sentidos y por lo tanto con bajo potencial de arrastrar y de estimular la economía regional. El cuadro 12 ofrece el detalle de las ramas de actividad que en el 2003 resultaban ser las menos interesantes desde la óptica del análisis de la articulación interna de la economía de la C.A. de Euskadi.

5.2. Dimensión y dinámica empresarial

Esta sección está dedicada al estudio de la estructura y dinamismo de los agentes productivos privados de la C.A. de Euskadi, es decir de sus empresas. El tamaño de las empresas es un factor de primer orden para entender la realidad y potencialidad productiva de la economía. Este factor juega un papel muy importante en un gran abanico de variables empresariales que van desde su posición en el mercado local e internacional hasta el aprovechamiento de economías de escala, de alcance o de provisión que repercuten directamente en sus resultados finales. Es decir, la dimensión empresarial posibilita la mejora de la realidad productiva de la economía y de su posición. Es así que el tamaño empresarial se ha convertido en una de las líneas prioritarias de intervención de la política industrial del Gobierno Vasco. También

Bigarren jarduera motak dira bitarteko manuflakuretakoak, eta horien barruan aurreranzko zein atzeranzko lotura handia duten adarrak daude. Tokiko eskualdearentzat traktore- eta bizkortze-gaitasun handiena duten jarduerak dira eta, beraz, ekonomiaren garapenerako estrategikoenak. 2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan bost ziren bitarteko manuflakura adarrak: zerbitzuetako bi –enpresei eskainitako zerbitzuak eta garraioa eta komunikazioak–, eraikuntza, elektrizitatea, gasa eta ura eta industriako bakarra –zuraren industria–.

Azken eskaria kategoria aurreranzko zein atzeranzko lotura txikia duten adarrek osatzen dute. Traktore-gaitasun handia daukate, tokiko bitarteko inpunten kontsumo handia egiten dutelako, baina bere produktuaren zati handi bat azken eskarira begira dago. Ostalaritza eta industria lau adar zeuden; horietako hiruk industriako –metalurgiak, makinagintza eta garraio materialak– Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreak eraturako produktuaren erdia baino gehiago osatzen zuten.

Laugarren mota lehen sektoreko azken produkzioko adarrek osatutakoa da; bi noranzkoetan lotura txikia daukate, eta horrenbestez, tokiko ekonomia arrastatzeko eta bizkortzeko gaitasun txikikoak dira. 12. taulak jasotzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren barne-artikulazioaren ikuspuntutik egindako analisisitik 2003. urtean interes txikiena zuten jarduera-adarrak zeintzuk ziren.

5.2. Empresa tamaina eta dinamika

Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio eragile pribatuen –hau da, enpresen– egituraren eta dinamismoaren analisisa egiteko ardura dauka atal honek. Enpresen tamaina lehen mailako garrantzia daukan faktorea da, ekonomiaren errealtate eta produkzio-gaitasuna ulertzeko. Faktore horrek oso zeregin garrantzitsua dauka enpresa-aldagai aukera handi batean horien artean izan daitezke eskualdeko zein nazioarteko merkatuan daukan kokapena edo beren azken emaitzetan eragin zuzena duten eskala-, luzera- eta hornidura-ekonomiak baliatzea. Hau da, enpresen tamainak ekonomiaren produkzio errealtatea eta horren kokapena hobetzeko aukera eskaintzen du. Hala, Eusko Jaurlaritzako industria-politikaren esku-hartzearen lehentasunetako bat enpresen tamaina da. Era berean, enpresen dinamismoak eragin onak ditu au-

Evolución del número de empresas y del empleo, por estrato de empleo. C.A. de Euskadi

13

Enpresa kopuruaren eta enpleguaren bilakaera, enplegu-geruzaren arabera. Euskal AE

	1995				2004				1995-2004 aldaketa %-tan Δ % (1995-2004)			
	Enpresak Empresas		Enplegua Empleo		Enpresak Empresas		Enplegua Empleo		Enpresak Empresas		Enplegua Empleo	
	N.º	(%)	N.º	(%)	N.º	(%)	N.º	(%)	N.º	(%)	N.º	(%)
<10 langile / Empleados	114.627	94,2	215.260	34,0	148.197	93,4	271.393	33,1	29,3	-0,8	26,1	-0,9
10-49	5.790	4,8	112.334	17,7	8.677	5,5	170.509	20,8	49,9	0,7	51,8	3,1
50-249	1.098	0,9	106.571	16,8	1.583	1,0	153.734	18,7	44,2	0,1	44,3	1,9
≥250	205	0,2	198.927	31,4	252	0,2	224.407	27,4	22,9	0,0	12,8	-4,0
Guztira / Total	121.720	100,0	633.092	100,0	158.709	100,0	820.043	100,0	30,4	-	29,5	-

Iturria: Eustat, Industria Kontuak.
Fuente: Eustat, Cuentas industriales.

el dinamismo empresarial posee un potencial de efectos inducidos beneficiosos para la economía, teniendo en cuenta que puede contribuir tanto a la generación de empleo como a la renovación productiva y tecnológica.

La dimensión empresarial de la C.A. de Euskadi muestra un marcado sesgo hacia las empresas pequeñas y muy pequeñas, como se deduce de la información que ofrece el cuadro 13. Así, el porcentaje de microempresas dentro del tejido empresarial de la C.A. de Euskadi representaba en 2004 un 93,4% del total, en relación al número de las mismas. El porcentaje de pequeñas empresas de entre diez y cincuenta empleados era del 5,5% y, como contrapartida, el porcentaje del número de empresas de más de cincuenta empleados constituía un 1,2% del total.

Si tomamos como referencia el empleo, el peso relativo de las empresas más pequeñas se reduce de manera significativa, puesto que éstas contribuían a la tercera parte del empleo total de la C.A. de Euskadi en 2004. A la inversa, las medianas y grandes empresas aumentan de manera notable su peso relativo si atendemos al empleo. No obstante, incluso utilizando los datos de empleo las pequeñas empresas de menos de 50 empleados siguen presentando un peso relativo importante en el sistema productivo de la C.A. de Euskadi, teniendo en cuenta que contribuían con casi el 54% al empleo total en 2004. Además, las pequeñas empresas de entre diez y cincuenta empleados fueron las más activas en la creación de empresas y empleo entre 1995 y 2004 ya que aumentaron en torno a un 50% en ambas variables en este periodo.

Las empresas medianas también crecieron por encima de la media en número y empleo durante estos años. En cambio, los tramos extremos han conocido tasas de variación por debajo de la media -30% en relación a 1995- para ambas variables. Como resultado, durante esta década ha tenido lugar una ligera disminución de la polarización del tamaño empresarial y un consiguiente aumento en el peso específico de las empresas pequeñas y medianas. Este resultado queda reflejado en la variación que han conocido las posiciones de los cuatro segmentos de tamaño en relación al número de empresas y al empleo durante este periodo. Así, las microempresas ven disminuir su participación en ambas variables perdiendo casi un punto en relación a 1995 y las mayores empresas aunque mantienen su peso relativo en relación al número pierden cuatro puntos en su participación en el empleo total de la C.A. de Euskadi. Aquí hay que señalar que la peor evolución relativa del empleo en las grandes empresas unido al tradicional mejor comportamiento en términos de facturación y VAB, está indicando de manera implícita que la mayor productividad que tradicionalmente muestran las grandes empresas ha tendido a crecer aún más durante estos años¹⁴.

El cuadro 14 permite comparar la dimensión empresarial de la C.A. de Euskadi con la del Estado español. De acuerdo con éste, comprobamos que no hay grandes diferencias de tamaño empresarial entre ambos territorios aunque es necesario realizar alguna matización. Así, el tamaño medio de las empresas del Estado ha crecido durante la primera mitad de la actual década por encima del correspondiente a la C.A. de Euskadi. La distribución porcentual se refiere únicamente a los datos del número de empresas y según esta información las empresas me-

diocin, enpleguen sorreran zein produkzio eta teknologia berritzea ekar dezakeelako.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen tamainak enpresa txiki eta oso txikietarako joera dauka, 13. taulak eskaintzen duen informazioak esaten duen moduan. Hala, 2004. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sarean zeuden mikroenpresak kopuru osoaren %93,4 ziren. Hamar eta berrogeita hamar langile arteko enpresa txikiak %5,5 ziren eta berrogeita hamar langile baino gehiago zituzten enpresak %1,2 ziren.

Enplegua erreferentzia gisa hartzen badugu, enpresa txikien pisu erlatiboak nabarmen egiten du behera, horiek Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu osoaren herena zeukatelako 2004. urtean. Era berean, enpresa ertain eta handiek asko igotzen dute beren pisu erlatiboak, enpleguari erreparatzen badiogu.. Hala ere, 50 langile baino gutxiagoko enpresa txikiak Euskal Autonomia Erkidegoko produkzio-sisteman duten pisu erlatibo handia da enpleguaren datuak erabili arren, enplegu osoaren %54 beraiena zelako 2004. urtean. Gainera, hamar eta berrogeita hamar langile arteko enpresa txikiak aktiboenak izan ziren enplegua eta enpresak sortzen, 1995. eta 2004. urteen artean, aldagai bakoitza %50 inguruan hazi zutelako epe horretan.

Enpresa ertainak batez bestekotik gora hazi ziren kopuruan zein enpleguan urte horietan. Hala ere, muturreko tarteez batez bestekotik beherako aldaketa-tasak -%30 1995. urtearekiko- izan dituzte aldagai bietan. Horren emaitza da hamarkada honetan enpresen tamainaren polarizazioak beherakada txikia izan duela, eta enpresa txikien eta ertainen pisu espezifiko irabazi dutela. Lau tamaina segmentuen kokapenak eta enpleguen aldatzeak epe horretan izan duten aldaketan agerian geratzen da emaitza hori. Hala, mikroenpresek bi aldagaientan egiten duten ekarpena gutxiagotu egiten da, eta 1995. urtearekiko puntu bat galtzen dute; enpresa handien kopuruarekiko duten pisu erlatiboari eusten diote, baina Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu osoari dagokionez, lau puntutan jaisten da beren parte-hartzea. Enpresa handien enpleguaren erlazio bilakaera txarragoa izateak eta fakturazio eta BEG terminoetan izan duten portaera hobek modu inplizituan erakusten du enpresa handiek izan ohi duten produktibitate handiagoa hazi egin dela urte hauetan¹⁴.

14. taulak Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen tamaina Espainiako estatukoekin alderatzeko aukera eskaintzen du. Hala, enpresen tamainan bi lurraldeen arteko alde handirik ez dagoela ikus daiteke; hala ere, zehaztapen bat egitea komeni da: Estatuko enpresen batez besteko tamaina Euskal AEko enpresen batez besteko tamainaren ginetik hazi da hamarkada honetan. Portzentaje banaketa enpresen tamainen arabera da bakarrik, eta informazio horren arabera, enpresa ertainek eta handiek presentzia erlatibo apur bat

¹⁴ En la línea de lo que expone Aranguren (1999) para la década de los noventa.

¹⁴ 90ko hamarkadarako Aranguren (1999) adierazitakoari jarraituta.

	Euskal AE C.A. de Euskadi		Estatua Estado	
	2000	2004	2000	2004
<10 langile / Empleados	94,1	93,3	93,0	93,6
10 - 49	4,8	5,5	6,2	5,5
≥50	1,1	1,2	0,8	0,9
Batez besteko tamaina: / Tamaño medio: (langile kopurua/enpresa) / (nº empleados/empresa)	4,8	5,2	4,7	5,3

Iturria: Eustat, DIRAE eta INE, DIRCE.
Fuente: Eustat, DIRAE e INE, DIRCE.

dianas y grandes tenían en 2004 una presencia relativa ligeramente mayor en la C.A. de Euskadi. Las pequeñas mostraban el mismo peso específico, pero con una evolución opuesta durante estos años ya que en el caso vasco aumentaron su presencia, mientras que en el estatal perdieron posiciones relativas. Por último también para las microempresas las posiciones relativas eran similares en 2004, si bien el Estado mostraba una leve supremacía, siendo ésta fruto de evoluciones dispares ya que mientras para el conjunto del Estado elevaron su presencia, en la C.A. de Euskadi redujeron su peso relativo.

handiagoa zuten Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004. urtean. Txikien pisu espezifiko berbera zen, baina urte hauetan izandako bilakaera kontrakoa zen, Euskadin gora egin zuelako zeukaten presentziak eta Estatuan kokapen erlatiboa galdu zutelako. Amaitzeko, mikroenpresen kokapen erlatiboa antzekoa zen, 2004. urtean; hala ere, Estatua apur bat gailentzen zen. Bilakaera ezberdinen ondorioa da hori, Estatuan beren presentzia areagotu zutelako, eta Euskal Autonomia Erkidegoan pisu erlatiboa galdu zutelako.

	1995		2004		Establezimenduak Establecimiento (%) Δ
	Establezimenduak guztira %-tan Establecimiento (%) s/total	Enplegua guztira %-tan Empleo (%) s/total	Establezimenduak guztira %-tan Establecimiento (%) s/total	Enplegua guztira %-tan Empleo (%) s/total	
Industria eta energia / Industria y energía	9,73	14,39	8,61	14,72	12,77
Eraikuntza / Construcción	9,86	3,55	13,67	3,33	76,54
Merkataritza eta konponketak / Comercio y reparac.	34,87	2,32	26,21	2,77	-4,32
Ostalaritza, gar. eta komun. / Hostelería, transp. y com.	15,02	2,99	16,98	3,01	43,87
Beste zerbitzuak / Otros servicios	16,20	6,83	14,86	6,87	16,78
Bankuak, aseguruak eta enpresei eskainitako zerbitzuak Banca, seguros y servicios a empresas	14,31	3,33	19,65	3,53	74,70
Guztira / Total	100,00	4,60	100,00	5,20	27,29

Iturria: Eustat «Ekonomia-Jardueren Direktorioa».
Fuente: Eustat «Directorio de Actividades Económicas».

Avanzando en el estudio del tamaño por sectores, el cuadro 15 muestra la distribución sectorial de los establecimientos y el tamaño medio sectorial para los años 1995 y 2004. En este caso el concepto de unidad de explotación económica es el establecimiento que permite alcanzar todo el rango sectorial de actividades económicas. El sector con mayor número de establecimientos era en 2004 el de comercio y reparaciones que disponía del 26,2% del total de la C.A. de Euskadi. Al contrario, industria y energía cubrían únicamente el 8,6% del total. El incremento del número de establecimientos se mantuvo por debajo de la media de la C.A. de Euskadi en otros

Tamainaren sektorekako azterketan aurrera eginda, 15. taulak erakusten du 1995. eta 2004. urteetarako zeintzuk ziren establezimenduen sektore banaketa eta sektorearen batez besteko tamaina. Kasu honetan, ustiapen-unitate kontzeptua establezimendua da, ekonomia-jardueren sektore banaketa guztia jasotzeko aukera eskaintzen duelako. 2004. urtean, merkataritza eta konponketak zen establezimendu gehien zituen sektorea, Euskal Autonomia Erkidegoko kopuru osoaren %26,2 zituelako. Industriak eta energiak, ordea, kopuru osoaren %8,6 hartzen zuten bakarrik. Establezimendu kopuruaren hazkundea Euskal Autonomia Erkidegoak izandako batez bestekotik beherakoa

servicios, industria y energía y, en particular, en comercio y reparaciones con una disminución neta del número de establecimientos. En este comportamiento tiene un impacto directo la implantación de grandes superficies comerciales cuyo efecto inducido es el cierre progresivo de establecimientos comerciales minoristas. De hecho, esto se ve reflejado en el aumento del tamaño medio de los establecimientos comerciales durante la última década (de 2,32 en 1995 a 2,77 empleos por establecimiento en 2004).

El mayor tamaño, medido en empleo por establecimiento, se generaba en la industria y energía con establecimientos empresariales de mucho mayor tamaño que la media de la economía (14,72 empleados frente al 5,2 empleados por establecimiento, respectivamente). Otros servicios también destaca en el mayor tamaño con respecto a la media que en 2004 se elevaba a 6,8 empleados. Además, este tamaño se ha visto ampliado a lo largo de estos años en ambos sectores junto a banca, seguros y servicios a empresas. Este no es un resultado que sorprenda en exceso, puesto que las grandes empresas y los grandes centros de servicios sociales tienen su implantación de forma mayoritaria en estas actividades.

izan zen beste zerbitzuetan, industrian eta energian eta, batez ere, merkataritzan eta konponketetan, horietan establezimendu kopuruaren beherakada garbia izan zelako. horretan eragin zuzena dauka merkataritza-gune handien ezarpenak; izan ere, horren eraginez txikizkako merkataritza establezimenduen itxiera progresiboa jazo da. Azken hamarkadan merkataritza establezimenduek izan duten batez besteko tamainaren hazkundean adierazten da hori (1995. urtean, 2,32 enplegu zeuden establezimenduko; 2004. urtean, 2,77 enplegu zeuden).

Establezimenduko zegoen enplegu kopuruan neurtutako tamaina handiagoak industrian eta energian zeukan jatorria, horiek zituzten establezimenduen tamaina ekonomiaren batez bestekoa baino dezente handiagoa zelako (14,72 enplegatu zituzten, eta batez bestekoa 5,2 enplegatukoa zen). Beste zerbitzuak ere 2004. urteko batez bestekoa baino handiagoa zeukan, eta 6,8 enplegatu zituen. Gainera, tamaina hori handitzen joan da azken urteotan sektore batean zein bestean, eta bankuak, aseguruak eta enpresei eskainitako zerbitzuetan beste horrenbeste gertatu da. Eraitza horrek ez du harridura handiegirik sortzen, enpresa handiak eta gizarte-zerbitzuetako zentro handiak jardura horietan daudelako.

*Dinamismo empresarial de la C.A. de Euskadi
(% medio anual de establecimientos
en relación a los existentes)*

16

**Euskal AEko enpresen dinamismoa
(establezimenduen urteko batez bestekoa,
daudenekin alderatuta)**

	1991-2000	2000-2004
Sarrera-tasa gordina / Tasa de entrada bruta	13	11,0
Irteera-tasa gordina / Tasa de salida bruta	11	9,5
Sarrera-tasa garbia / Tasa de entrada neta	2	1,5
BPGren hazkunde metatua / Crecimiento acumulado del PIB	20	18,0

Iturria: Eustat, Ekonomia Jardueren Direktoria.
Fuente: Eustat, Directorio de Actividades Económicas.

Para concluir analizamos el dinamismo empresarial a partir del criterio de cierre y creación de empresas identificadas como nuevos establecimientos. Los indicadores más habituales son los de entradas brutas –número de nuevos establecimientos creados– y salidas brutas –número de establecimientos que abandonan la actividad– y su resultante que es la entrada neta. El cuadro 16 ofrece datos relativos de estos indicadores medidos en tasas de variación media anual de establecimientos en relación porcentual a los existentes el año anterior.

Siguiendo el cuadro 16, en la C.A. de Euskadi se crearon 13 empresas de cien existentes por término medio al año en la década de los noventa, mientras que abandonaron su actividad el 11%, dando como resultado una entrada neta de 2 empresas por cada cien. En el periodo 2000-2004 las tasas tanto de entrada como de salida disminuyen sensiblemente, al 11% y 9,5%, respectivamente, de manera que la entrada neta pasó a ser algo menor que en el periodo anterior alcanzando el 1,5 por cada 100 empresas. En definitiva podemos observar que tanto las tasas de entrada bruta y neta como las de salida muestran una evolución cíclica en consonancia con la evolución del PIB. Aunque hay que señalar que si diferenciáramos la década en dos mitades, la primera con tasas de crecimiento económico débiles y mayores en la segunda, se podría concluir que las tasas de entrada bruta y neta siguen siendo procíclicas pero que las de salida son independientes del ciclo económico.

Amaitzeko, enpresen dinamismoa aztertuko dugu, establezimendu berri gisa identifikatutako enpresen ixtea eta sorrera irizpideari jarraituta. Adierazle ohikoena hauek dira: sarrera gordinak –eratutako establezimendu berrien kopurua– eta irteera gordinak –beren jardura uzten duten enpresa kopurua– eta beren emaitza edo sarrera garbia. 16. taulak adierazle horiei dagozkien datu erlatiboak eskaintzen ditu, establezimenduen urteko batez besteko aldaketa-tasaren arabera neurtuta, eta alderatzea aurreko urtean zegoen establezimendu kopuruarekin eginda.

16. taula jarraituta, Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden ehun enpresako urtean 13 enpresa eratu ziren batez beste, 90eko hamarkadan; %11k, ordea, beren jardura eten zuten. Horrenbestez, ehun enpresako bi enpresen sarrera garbia izan zen. 2000-2004 epean, sarrera zein irteera-tasek nabarmen egin zuten behera, %11ra eta %9,5era, hurrenez hurren; hala, sarrera garbia aurreko epekoa baino apur bat txikiagoa izan zen: zeuden ehun enpresekiko 1,5ekoa. Horrenbestez, sarrera-tasa gordinak eta garbiak zein irteera-tasek BPGrekin bat datorren bilakaera ziklikoa daukatela ikus daiteke. Hala ere, hamarkada bi zatitan erdibitzen badugu, lehenengoak hazkunde ekonomiko ahula izan zuen eta bigarrenak handiagoa, eta sarrera gordinak eta garbiak proziklikoak izaten jarraitzen dute; irteerakoak, ordea, ekonomia zikloaren-gandik independenteak dira.

6. CONCLUSIONES

El principal resultado que se extrae del análisis de la coyuntura reciente de la economía de la C.A. de Euskadi tiene que ver con su inserción en el espacio económico europeo. En efecto, el estudio muestra que tanto la trayectoria como las pautas de comportamiento económico de la C.A. de Euskadi están progresivamente vinculadas a los patrones de la Unión Europea, aunque el marco económico del Estado sigue ejerciendo un papel significativo en su devenir. A pesar de que el mercado único y la unión monetaria se han formalizado, la realidad de la integración es mucho más complicada y el proceso hacia la unión económica y social está lleno de dificultades. En esta transición hacia la integración económica, la C.A. de Euskadi está desarrollando un gran esfuerzo de adaptación y durante esta década ha dispuesto su orientación estratégica en el objetivo de su inserción económica y plena integración en el marco social y económico de la Unión Europea. Si bien este proceso es relativamente nuevo y sigue abierto, los resultados para los indicadores económicos atestiguan esa tendencia hacia la convergencia, a pesar de las lagunas que quedan por cubrir en varios ámbitos, sobre todo en el social. En definitiva, la C.A. de Euskadi tiene ante sí el reto de consolidar la convergencia económica real con la Unión Europea conjugándola con un perfil de desarrollo social y sostenible que, a su vez, sean garantías de irreversibilidad en el proceso de integración socioeconómica en la Unión ampliada.

En concreto, la evolución económica de la C.A. de Euskadi medida en términos de producto generado, se encuadra dentro de los parámetros de crecimiento de la Unión Europea mejorando sus resultados medios durante el periodo 1995-2004. Este mejor comportamiento relativo del producto generado en la C.A. de Euskadi ha posibilitado una convergencia real con la Unión Europea. En lo que respecta a la convergencia nominal a través del índice de inflación, se observa un comportamiento diferencial durante este periodo con un repunte inflacionista en la segunda mitad. Aunque esta evolución no ha sido un obstáculo para la generación de empleo.

En el crecimiento económico de la C.A. de Euskadi durante estos años se pueden distinguir dos intervalos, uno de fuerte crecimiento del PIB entre 1997 y 2000 –con tasas en torno al 5%– y el resto del periodo cuando las tasas se situaron alrededor del 3%. El componente tractor de la pujanza del PIB durante estos años es la demanda interior, dentro de la cual destaca al igual que en el resto del Estado el notable crecimiento de las inversiones, incentivadas por el importante crecimiento de la economía internacional en la segunda mitad de los noventa y por el insólito descenso de los tipos de interés reales durante la primera mitad de la actual década. El consumo interno contribuye al crecimiento del producto, no siendo éste el caso del consumo público con la excepción de tres de los últimos años considerados en los que juega un papel anticíclico frenando la disminución en las tasas de crecimiento.

En cambio, la demanda exterior destacó más bien por su contribución negativa al crecimiento cuantitativo del PIB de la C.A. de Euskadi durante estos años. Ahora bien, las interrelaciones de la C.A. de Euskadi con la economía internacional no han dejado de intensificarse, tanto si se tiene en cuenta los flujos de comercio exterior como los de inversión extran-

6. ONDORIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren hurbileko koiunturaren analititik ateratzen den ondorio nagusiak Europako ekonomian daukan txertaketarekin dauka zerikusia. Izan ere, azterketak erakusten du Euskal Autonomia Erkidegoko ibilbidea zein portaera irizpideak Europar Batasunekoekin progresiboki lotuta daudela; hala ere, Estatuaren ekonomia-markoak eragin handia izaten jarraitzen du. Merkatu bateratua eta moneta-batasuna formalizatu dira, baina txertatzearen erreallitatea askoz konplexuagoa da, eta ekonomia eta gizarte batasunerako prozesua oztopoz beteta dago. Ekonomia txertatzerako prozesuan Euskal Autonomia Erkidegoa egokitze ahalegin handia egiten ari da, eta azken hamarkada honetan ekonomia txertatzera begira jarri du bere estrategia, Europar Batasuneko gizarte- eta ekonomia-markoan erabateko txertatzea lortzeko helburuarekin. Prozesu hori nahiko berria da eta zabalik jarraitzen du, baina ekonomiarako adierazleek erakusten dute elkarganatzeko joerak jarraitzen duela, hainbat arlotan hutsuneak egon arren, batez ere gizartean. Azken baten, Euskal Autonomia Erkidegoak Europar Batasunarekiko benetako elkarganatzea egonkortzeko erronka dauka bere aurrean, eta hori garapen sozial eta iraunkorra duen soslaiarekin uztartu behar du, eta,aldi berean, zabaldutako Europar Batasunaren txertatze sozio-ekonomiko prozesuan atzerazinez bermea izan behar dute.

Zehatzago esanda, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren bilakaera eraturako produktuari dagokionez, Europar Batasuneko hazkunde parametroetan koka daiteke; gainera, bere batez besteko emaitzak hobetu egin ditu 1995-2004 epean. Euskal Autonomia Erkidegoan eraturako produktua portaera erlatibo hobekia Europar Batasunarekin benetako elkarganatzea egiteko aukera eskaini du. Inflazio-tasaren bitartez egindako elkarganatze nominalari dagokionez, epe horretan portaera bereizgarri bat dagoela ikus daiteke, bigarren erdian inflazio hazkundera izan zelako. Hala ere, bilakera hori ez da oztopoa izan enplegua sortzeko.

Urte hauetan Euskal Autonomia Erkidegoak izan duen ekonomia hazkundera bi epe bereiz daitezke: 1997. eta 2000. urteen artean BPG hazkunde handia izan zuen –%5aren bueltako tasekin–, eta epearen gainontzeko zatian tasak %3aren bueltakoak izan ziren. Urte hauetan BPGren hazkundeak izandako traktore-osagaia barne-eskaria da. Horren barruan, Estatu gainontzeko lurraldeekin gertatzen den bezala, inbertsioek izandako hazkundera azpimarragarria da. 90eko hamarkadaren bigarren erdian nazioarte mailan izandako hazkunde ekonomikoa handiak eta egungo hamarkadaren lehen zatian benetako interes-tasek izandako beharrez sinestezinak eraginda izan dute hazkunde hori inbertsioek. Barne-konsumoak produktuaren hazkundera egiten dio mesede, baina hori ez da kontsumo publikoaren kasua, kontuan hartutako azken hiru urteak izan ezik, zeintzuetan paper antiziklikoa jokatzen zuen, hazkunde-tasa galtzatzea eraginez.

Hala ere, kanpo-eskaria urte horietan Euskal Autonomia Erkidegoko BPGren hazkunde kuantitatiboari egindako ekarpen negatiboarengatik nabarmendu behar da. Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak nazioarteko ekonomiarekin izandako harremanak areagotu egin dira, kanpo-merkatutzako fluxuak zein atzerriko zuzeneko inbertsioa

jera directa. La inserción externa de la economía de la C.A. de Euskadi se ha visto incrementada de manera notable no sólo en el terreno comercial sino también en el inversor, aunque lo hace más como exportadora que como importadora, de ahí los resultados positivos en los saldos comerciales y de inversión extranjera. Durante estos años también ha tenido lugar una aproximación a los patrones europeos en lo relativo al contenido tecnológico de las exportaciones.

La C.A. de Euskadi se interrelaciona comercialmente sobre todo y de forma creciente con los países occidentales y, en especial, con los de la Unión Europea, aunque en lo que afecta a las importaciones se producía una pérdida de estas vinculaciones y un ligero aumento de las relativas a Rusia y países colindantes no miembros de la Unión Europea. En lo que afecta a la inversión extranjera los flujos de entrada mostraban un origen occidental en una proporción muy elevada, pero no así los de salida, fuertemente condicionados por las inversiones financieras en países latinoamericanos.

En cuanto a la dinámica productiva, durante estos años la economía de la C.A. de Euskadi avanza en el proceso de terciarización, de diversificación productiva, aunque el patrón manufacturero tradicional no se ve profundamente alterado y la industria del metal sigue manteniendo su primacía en el sector. Este proceso ha posibilitado también una progresión en la participación de actividades de mayor contenido tecnológico durante estos años además de una mayor cohesión productiva interna medida a partir de las relaciones intersectoriales directas. Además, la mayor presencia de actividades de servicios no ha impedido que se produzca un ligero aumento en el tamaño medio de las empresas de la C.A. de Euskadi.

kontuan hartzen baditugu. Euskal Autonomia Erkidegoko kanpo txertatzea nabarmen areagotu da merkataritza esparruan zein inbertsioen esparruan, nahiz eta inportatzaile baino gehiago esportatzaile gisa egiten duen; eta horren ondorioz, atzerriko merkataritza- eta inbertsio-saldoen emaitzak positiboak dira. Esportazioen teknologia edukiarri dagokionez, Europar Batasuneko ezaugarrietara hurbilpena egon da urte hauetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak batez ere mendebaldeko herrialdeekin dauka merkataritza-harremana, eta batez ere, Europar Batasunekoekin. Inportazioei dagokionez, harreman hori txikiagoa da, eta Errusiarekin eta Europar Batasunekoak ez diren inguruko herrialdeekin daukan harremana handiagoa da. Atzerriko inbertsioari dagokionez, sarre-ra-fluxuek erakusten dute gehien-gehiengoaren jatorria mendebaldeko herrialdeetako dela; irteerakoera, ordea, ez, Latin Amerikako herrialdeetan egindako finantza-inbertsioengatik oso baldintzatuta daudelako.

Urte hauetako produkzio dinamikari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak hirugarren sektorerako eta produkzioa dibertsifikatzeko daukan joera areagotu du, baina ohiko manufaktura ezaugarria ia ez da ezer aldatu eta metalaren industriak nagusi izaten jarraitzen du bere sektorean. Prozesu horrek eragin du teknologia eduki handiena duten jardueren parte-hartzea handiagoa izatea urte hauetan; era berean, barne-produkzioaren kohesioa handiagoa izaten lagundu du, sektoreen arteko harreman zuzenak gehiago izan direlako. Gainera, zerbitzu-jarduerak gehiago izatea ez da oztopo izan Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen batez besteko tamaina apur bat handitzeko.

7. BIBLIOGRAFÍA

- ARANGUREN, M. J. (1999): «Tamaño y costes en las empresas manufactureras de la CAPV». *Ekonomiaz*, n. 44, 174-208.
- ESPÍNOLA, J. R. de (2006): *Estructuras y flujos de la economía española (1985-2004)*. Editorial Universitas, Madrid.
- GÓMEZ, M. (ed.) (2003): *Basque Economy from Industrialization to Globalization*. University of Nevada, Reno.
- JUBETO, Y.; MARILUZ, S.; ZURBANO, M. (koord.) (2002): *Euskal Herriko Ekonomia. Eraldaketa sozioekonomikoak Europako Batasuneko integrazio-prozesuan*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao.
- MORENO, J. y ZURBANO, M. (1999): «El cambio estructural y los servicios en la CAPV. Un análisis en base a las TIO-CAPV de 1995», en EUSTAT: *Tablas Input-Output de la Comunidad Autónoma de Euskadi –1995–: Análisis de Resultados*. Vitoria-Gasteiz, 407-443.
- OCDE (2001): *Science, Technology and Industry Scoreboard*. Paris.
- NAVARRO, M. y BUESA, M. (dir.) (2004): *Sistema de Innovación y Competitividad en el País Vasco*. Eusko Ikaskuntza, San Sebastián.
- NAVARRO, M. y OLARTE, J. (2004): «Inversión exterior y posición competitiva de País Vasco y España. Análisis particular frente a los países de la ampliación». *Ekonomiaz*, n. 55, 170-212.
- PEÑA, I. y ARIAS, A. (2004): «Las Pymes manufactureras de la CAPV ante el reto de la internacionalización». *Ekonomiaz*, n. 55, 146-170.
- PRADO, C. y DOMÍNGUEZ, J. M. (1999): «Articulación interna de la economía vasca en el periodo 1990-1995», en EUSTAT: *Tablas Input-Output de la Comunidad Autónoma de Euskadi-1995. Análisis de Resultados*. Vitoria-Gasteiz, 1-65.

INFORMES Y ESTADÍSTICAS

- BANCO CENTRAL EUROPEO. Informe anual, varios años, Frankfurt.
- BANCO MUNDIAL. Informe sobre el Desarrollo Mundial, varios años, Washington.
- CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL. Memoria Socioeconómica. Comunidad Autónoma del País Vasco, varios años, Bilbao.
- EUROSTAT. epp.eurostat.cec.eu.int
- EUSTAT. www.eustat.es
- FONDO MONETARIO INTERNACIONAL. Perspectivas de la Economía Mundial, varios años, Washington.
- GOBIERNO VASCO. Economía Vasca, Informe anual, Vitoria-Gasteiz.
- INE. www.ine.es
- OCDE. Cuentas Nacionales, varios años, París.
- ORGANIZACIÓN MUNDIAL DEL COMERCIO. Informe sobre Comercio Mundial, varios años, Ginebra.
- UNCTAD. Informe sobre las Inversiones en el Mundo, varios años, Nueva York.

7. BIBLIOGRAFIA

- ARANGUREN, M. J. (1999): «Tamaño y costes en las empresas manufactureras de la CAPV». *Ekonomiaz*, 44 zkia., 174-208.
- ESPÍNOLA, J. R. de (2006): *Estructuras y flujos de la economía española (1985-2004)*. Universitas argitaletxea, Madril.
- GÓMEZ, M. (ed.) (2003): *Basque Economy from Industrialization to Globalization*. University of Nevada, Reno.
- JUBETO, Y.; MARILUZ, S.; ZURBANO, M. (koord.) (2002): *Euskal Herriko Ekonomia. Eraldaketa sozioekonomikoak Europar Batasuneko integrazio-prozesuan*. Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- MORENO, J. eta ZURBANO, M. (1999): «El cambio estructural y los servicios en la CAPV. Un análisis en base a las TIO-CAPV de 1995», EUSTATen: *Tablas Input-Output de la Comunidad Autónoma de Euskadi –1995–: Análisis de Resultados*. Vitoria-Gasteiz, 407-443.
- OCDE (2001): *Science, Technology and Industry Scoreboard*. Paris.
- NAVARRO, M. eta BUESA, M. (zuz.) (2004): *Sistema de Innovación y Competitividad en el País Vasco*. Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- NAVARRO, M. eta OLARTE, J. (2004): «Inversión exterior y posición competitiva de País Vasco y España. Análisis particular frente a los países de la ampliación». *Ekonomiaz*, 55 zkia., 170-212.
- PEÑA, I. eta ARIAS, A. (2004): «Las Pymes manufactureras de la CAPV ante el reto de la internacionalización». *Ekonomiaz*, 55 zkia., 146-170.
- PRADO, C. eta DOMÍNGUEZ, J. M. (1999): «Articulación interna de la economía vasca en el periodo 1990-1995», EUSTATen: *Tablas Input-Output de la Comunidad Autónoma de Euskadi-1995. Análisis de Resultados*. Vitoria-Gasteiz, 1-65.

TXOSTENAK ETA ESTATISTIKAK

- EUROPAKO BANKU ZENTRALA, Urteko txostena, hainbat urte, Frankfurt.
- MUNDUKO BANKUA. Munduaren garapenari buruzko txostena, hainbat urte, Washington.
- EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA. Txosten sozioekonomikoa. Euskal Autonomia Erkidegoa, hainbat urte, Bilbo.
- EUROSTAT. epp.eurostat.cec.eu.int
- EUSTAT. www.eustat.es
- NAZIOARTEKO MONETA FUNTSA. Munduko Ekonomiaren Perspektibak, hainbat urte, Washington.
- EUSKO JAURLARITZA. Euskal Ekonomia, Urteko Txostena, Vitoria-Gasteiz.
- INE. www.ine.es
- ELGA. Nazio Kontuak, hainbat urte, Paris.
- MUNDUKO MERKATARITZAREN ELKARTEA. Munduko Merkataritza Buruzko Txostena, hainbat urte, Geneve.
- UNCTAD. Munduko Inbertsioei Buruzko Txostena, hainbat urte, New York.